



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 15a

140. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tuterako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Tuterako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko urriaren 27an eginitako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Tuterako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko urriaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Tuterako Udalarri buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (6. or.).
- III. Norainokoa (6. or.).
- IV. 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).
 - IV.1. Udalarriaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.3. Udalarriaren 2013ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (7. or.).
 - IV.4. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (9. or.).

V. Udalarriaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).

V.1. 2013ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (10. or.).

V.2. 2013ko aurrekontu-emaitza bateratua (11. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n (11. or.).

V.4. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantze balantze bateratua (12. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2013an (13. or.).

VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (14. or.).

VI.1. Alderdi orokorra (14. or.).

VI.2. Langileak (14. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (16. or.).

VI.4. Finantza-zama (16. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).

VI.6. Inbertsioak (18. or.).

VI.7. Aurrekontuko diru-sarrerak (19. or.).

VI.8. Hirigintza (20. or.).

Eranskina: Udalarriaren oroitidazkia.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:


www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Tuterako Udalaren eta haren menpeko enteen 2013ko Kontu Orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Tuterako udalerriak 215 km²-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 35.369 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Administrazioaren Sektorre Publikoa, Udalak berak eta haren erakunde autonomoa den Uren Batzarrak osatzen dutena. Honakoak dira haren 2013ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako eskubideak (2013)	Langileak 2013-12-31n
Udala	30.521.716	31.944.210	296
Uren Batzarra	2.753.297	3.158.698	27
Guztira	33.275.013	35.102.908	323

2013an Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Batzarrari.

- Enpresen Sektorre Publikoa. Udalak Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoaren jabetza osoa dauka. Entitate horrek zortzi langile dauzka 2013ko abenduaren 31n.

Udalak, 2013an, 1.100.000 euro eman dizkio entitate horri.

2013an, bateratuta aurkeztu ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta enpresa-entitatearen kontuak. Bateratze horren aurrekontu-datu nagusiak honako taula honetan azaltzen dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aitortutako eskubideak (2013)
Udala	30.521.716	31.944.210
Uren Batzarra	2.753.297	3.158.698
Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoa	1.364.306	1.428.106
-Bateratzearen doitzeak	-1.100.000	-1.100.000
Guztira	33.539.318	35.431.013

- Fundazioen Sektore Publikoa. Udalak honako fundazio hauek eratu ditu: Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa eta María Forcada Fundazioa. 2013an datu ekonomiko hauek dituzte (emaitzen kontua):

Fundazio publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2013-12-31n
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	179.056	228.828	-49.772	4
María Forcada Fundazioa	26.333	115.568	-89.235	0

2013an, Udalak guztira 115.000 euro eman dizkio Dédalo Fundazioari.

Udalak, gainera, patroi gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan:

- Miguel Eza.
- Real Casa de Misericordia.
- Manuel de Castel-Ruiz

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- a) Erriberako Mankomunitatea, zeinak hondakinak biltzeko eta etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko zerbitzua eta lazareto zerbitzua ematen dituen.
- b) UNEDen Tuterako ikastetxe elkartua.
- c) Tarazonicaren Bide Berdearen partzuergoa.
- d) Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER).
- e) "Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.

Zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Erriberako Mankomunitatea	44.258
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	27.963
Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER)	68.404
"Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.	14.000

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X				
Musika eskola	X				
Hirigintza	X				
Lorategiak				X	
Hiri hondakinak			X		
Ur-hornidura		X			
Garraio publikoa				X	
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen arreta zerbitzua	X				
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X				
Kirolak	X				X
Kirol jardueren kudeaketa				X	
Udal Kiroldegiak	X				
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa				X	
Familien Arreta Zentroa	X				
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X				

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Entitatearen aurrekontua 2013ko apirilaren 26an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2014ko maiatzaren 26ko Osoko Bilkurak 2013ko kontuak onetsi zituen.

Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoak bere estatutuei jarraitzen die, bai eta toki-erregimeneko araudian ezarritakoari eta indarrean dagoen merkataritza-arauari ere; hau da, Merkataritza Kodeari, Kapital Sozietateei buruzko Legeari eta Kontabilitatearen Plan Orokorrari.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2013ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2013ko ekitaldiko kontuei buruz egindako oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko, Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoko eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia eta ondorioak agertzea:

- Ea Tuterako Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- 2013an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia zenbateraino bete den.
- Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.
- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2012ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako aholkuak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Tuterako Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoaren urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala, erakunde autonomoa eta Castel-Ruiz), oroitidazkia, zorraren egoera-orria eta fundazioen urteko kontuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontrolako alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

Kanpoko profesionalak finantzen eta legezkotasunaren auditoria bat egin dute Castel-Ruiz Enpresa Entitate Publikoaren 2013ko urteko kontuei buruz, eta haien iritzia aldekoa izan da.

IV. 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Tuterako Udalaren 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, Udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritzi hau atera dugu:

IV.1. UDALAREN 2013ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 1993tik ez dela jarduneko langilerik afiliatu sistema horretan. Udalak pentsioengatiko konpromisoak buruzko balioespen finantzario-aktuariala egin du, pasiboak zein aktiboak dagokienez. Konpromiso horiek, lan-hipotesien arabera, 59.464.748 euro egiten dute, montepioak indarra izanen duen aldirako.

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioak dagokienez izan ezik, Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzeko den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Egindako lanaren norainokoaren arabera, 2013ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde autonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezotasun-printzipioari jarraituz egin dela esan daiteke.

IV.3. UDALAREN 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontu bateratuak (Udala, Uren Batzarra eta Castel-Ruiz) 35,54 milioiko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 3,96 –hau da, 1,41 milioi– handitu da aurrekontu-aldaketaren bitartez; horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 36,95 milioikoak eta 36,87 milioikoak dira diru-sarrerarako eta gastuetarako, hurrenez hurren. Aldaketa horiek honako bitartez egin dira: aurreko ekitaldietako inbertsioaren gerakinak (Udalaren 854.000 euro eta Uren Batzarraren 228.000 euro) eta Udalaren 299.000 euroko transferentziak.

Aitortutako betebeharrak 33,54 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute. Betetze-ehuneko txikiena duen kapitulua inbertsioena da, ehuneko 51rekin, obrak geldiaraztearen eta geroraztearen ondorioz, krisi ekonomikoa dela-eta gastuei eusteko dagoen politikari jarraituz. Betetze-maila handiena langile-gastuen kapitulari dagokio: ehuneko 96koa. Transferentzien atalak, berriz, honela bete dira: transferentzia arruntak ehuneko 74 bete dira; eta kapital-transferentziak, berriz, ehuneko 72.

Aitortutako eskubideek 35,43 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 96koa izan da. Zuzeneko zergek, tasek eta ondare bidezko diru-sarrerak betetzearen ehuneko ehuna gaitzen dute. Zeharkako zergek ehuneko 42ko betetzea dute, eta kapital-transferentziek eta finantza-aktibo zein -pasiboek ez dute betetzerik izan.

Gastuen izaerari begiraturik gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 89 eta ehuneko 3 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 99 dira; diru-sarrera horien ehuneko 34 jasotako transferentzietatik (arruntak) datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzabidea	Ehunekoa
Langileak	47	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	41	Transferentziak	34
Inbertsioak	3	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	6
Finantza-zama	9	Zorduntzea	0
Guztira	100		100

Hona 2013rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2012tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2012	2013	Aldea (%), 2013/2012
Aitortutako betebeharrak, guztira	34.164.125	33.539.318	-2
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	32.399.650	31.092.567	-4
Likidatutako eskubideak, guztira	35.767.973	35.431.013	-1
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	35.767.973	35.431.013	-1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	30.469.365	29.945.661	-2
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	29.660.343	29.383.773	-1
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.930.285	1.146.906	-41
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	1.764.475	2.446.751	39
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	35.110.739	34.996.347	0
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	21.253.369	21.080.468	-1
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	-
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	35	34	-
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	70	70	-
Saldo ez-finantzarioa	3.368.323	4.338.446	29
Aurrekontu-emaizta doituak	1.153.670	1.627.960	41
Aurrezki gordina	5.450.396	5.612.575	3
Finantza-zama (3tik 9ra)	2.573.496	3.008.639	17
Aurrezki garbia	2.876.900	2.603.935	-9
Zorpetze-mailaren ehunekoa	7,33	8,6	-
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	15,52	16,04	-
Zorpetze-ahaltenaren ehunekoa	8,19	7	-
Diruzaintza-gerakina, guztira	6.377.522	7.731.476	21
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-6.730.289	-5.810.340	-14
Zor bizia	41.499.562	39.052.811	-6
Diru-sarrera arrunten gainean zor biziak egiten duen ehunekoa	118	112	-
Biztanle bakoitzeko zor bizia	1.174	1.104	-6
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	8	7	-

2013an, Udalak aurreko ekitaldian baino ehuneko 2 gutxiago gastatu du, eta aurreko ekitaldian baino ehuneko 1 gutxiago diru-sarrerak izan ditu. Beherakada horren arrazoia da inbertsioetan eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastu txikiagoak justifikatu direla, egoera ekonomikoaren ondorioz. Diru-sarrerari dagokienez, beherakada ez da hain garrantzitsua izan, zeren eta transferentzia arrunten eta kapital-transferentzia txikiagoen eragina tributu-bidezko diru-sarrera handiagoekin konpentsatu baita.

Gastu arruntetan, ehuneko 2ko jaitsiera izan da; eta diru-sarrera arruntetan, berriz, ia ez da alderik izan. Gastu arruntetan izandako murrizketaren arrazoia, nagusiki, ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko eta gastuen finantzarioen arloko gastuak jaitea izan da.

Aurrekontu-emaizta doituak 1,63 milioiko superabita erakusten du; aurreko urtean, berriz, 1,15 milioiko superabita izan zuen.

2013an, aurrezki gordin bateratua 5,61 milioi eurokoa izan zen; aurrezki garbiak, berriz, 2,6 milioi euroko saldoa izan zuen. 2012ko ekitaldian, magnitude horiek 5,45 milioiko eta 2,8 milioiko saldoa izan zuten, hurrenez hurren.

Zorpetze maila ehuneko 8,6koa da; zorpetze-muga, berriz, ehuneko 16,04koa.

Diruzaintza-gerakina 7,73 milioikoa da guztira; 2012ko ekitaldian, berriz, 6,37 milioikoa izan zen. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak negatiboa izaten jarraitzen du, -5,81 milioi eurokoa (-6,73 milioi eurokoa izan zen 2012an).

Epe luzeko zorra 39 milioi eurokoa da; 2012an, berriz, 41 milioi eurokoa izan zen. Zor horrek – zeina 1.104 eurokoa baita biztanle bakoitzeko – entitatearen diru-sarrerara arrunten guztizkoaren ehuneko 112 egiten du. Portzentaje hori gaur egun zorpetze berria baldintzatzen duen ehuneko 110eko legezko mugaren gainetik dago.

Zehaztu beharra dago legezko muga hori Estatuko araudiak ezartzen duela, baina Udalak jada lehendik zorra itundua zuela eta inbertsio batzuk eginak zituela. Muga hori gainditzen duenez, Udalak ezin du beste inbertsiorik egin, guztiz finantzatuta ez badaude. 2013an zorpetze berririk hartu ez bada ere, 2008tik 2010erako ekitaldietan abian izan diren eta amaituta dauden inbertsioak finantzatza bideratutako 8,7 milioi euroko mailegu formalizatu gabeak erantsiko balira, guztizko zorpetzea 47 milioi eurokoa izanen litzateke. Hala eta guztiz ere, esan beharra dago abenduaren 31ko diruzaintzako saldoak gora egin duela aurreko urtekoarekin alderatuta, eta 10,5 milioi egiten duela.

Horregatik, bada, eta epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eusteko eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Kopurua
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	4.338.446
Doikuntzak	-844.072
Finantzatzeko ahalmena	3.494.374

Horrenbestez, Tuterako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak bete ditu, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2012koa gehi ehuneko 1,7); alabaina, ez du bete finantza-iraunkortasunaren printzipioa, zeren eta zorra ezarritako mugatik gorakoa baita.

Hala eta guztiz ere, kontu-hartzaileak dioen bezala, nabarmendu beharra dago “Udalaren Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 28an, 2009ko kontuen itxieran agerian jarritako egoera ekonomiko-finantzarioaren aurrean eta mailegu-eragiketa bat ituntzeko beharra zela-eta, 2010-2015 urteetarako saneamendu plan bat onetsi zuen. Plan horretan gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak ezarri ziren, bai eta jarritako helburuak lortzeko ekitaldiz ekitaldi erdietsi beharreko emaitzak ere.

2012ko ekitaldiaren itxieran bezala, aurkitzen dugu bai gastuak, bai diru-sarrerak planeko aurreikuspenak baino txikiagoak izan direla. Emaitzari dagokionez, aurreikusita zegoen 391.000 euro positibo izatea, baina 988.489 eurokoa izan da. Kontuan hartzen badugu aurreikusita zegoela 523.000 euro bideratzea formalizatu ez diren maileguen interesak ordaintzera, jo daiteke, beste parametro batzuk aztertu gabe, lortu egin dela 2013an planaren helburu nagusia betetzea. Zorpetze-maila (finantza-zamak diru-sarrerara arrutetan zenbat egiten duen) ehuneko 10,8koa izatea planteatzen zen, baina ehuneko 9,3koa izan da. Magnitude horrek zorpetzeari buruzko egungo araudiaren eraginez egin du behera”.

Fiskalizazioari buruzko gure iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuaren ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.4. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Txosteneari zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

V. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2013ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala gehi erakunde autonomoa gehi entitate publiko enpresariala).

V.1. 2013ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	16.359.356	-55.000	16.304.356	15.701.978	96	15.453.560	248.418	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	13.363.639	77.715	13.441.354	12.236.386	91	10.465.693	1.770.692	14
3. Finantza-gastuak	797.259	-44.521	752.737	561.888	75	559.788	2.100	0
4. Transferentzia arruntak	1.959.269	885	1.960.154	1.445.409	74	1.173.181	272.228	19
6. Inbertsio errealak	138.500	1.424.797	1.563.297	801.767	51	354.567	447.200	56
7. Kapital-transferentziak	475.000	5.000	480.000	345.139	72	333.243	11.896	3
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	2.446.751	0	2.446.751	2.446.751	100	2.446.751	0	0
Guztira	35.539.774	1.408.877	36.948.650	33.539.318	91	30.786.783	2.752.535	8

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)	
1. Zuzeneko zergak	11.758.800	11.758.800	0	11.758.800	11.877.842	101	10.907.964	969.878	8
2. Zeharkako zergak	900.000	0	900.000	375.161	42	349.687	25.475	7	
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.597.825	26.653	8.624.478	8.827.465	102	7.517.633	1.309.832	15	
4. Transferentzia arruntak	12.623.499	3.000	12.626.499	12.159.849	96	12.105.878	53.972	0	
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.659.650	0	1.659.650	1.756.030	106	1.682.829	73.201	4	
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	434.666	-	434.666	0	0	
7. Kapital-transferentziak	0	296.080	296.080	0	0	0	0	-	
8. Finantza-aktiboak	0	-6.809.394	-6.809.394	0	0	0	0	-	
9. Finantza-pasiboak	0	7.892.538	7.892.538	0	0	0	0	-	
Guztira	35.539.774	1.408.877	36.948.650	35.431.013	96	32.998.656	2.432.358	7	

V.2. 2013ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2012	2013
+ Aitortutako eskubideak	35.767.973	35.431.013
– Aitortutako betebeharrak	34.164.125	33.539.318
= Aurrekontu-emaiza	1.603.848	1.891.695
Doikuntzak		
– Finantzaketaren desbideratze positiboak	373.634	434.005
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	7.131.483	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak		170.269
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	-7.208.028	
= Aurrekontu-emaiza doituia	1.153.670	1.627.960

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2013ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2012	2013
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.676.279	2.912.287
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	3.338.673	2.432.357
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	3.372.677	3.505.568
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	366.440	333.482
(+) Gastuen itzulketak	3.568	6.637
(–) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-114.508	-85.771
(–) Nekez kobratzeko eskubideak	-3.290.572	-3.279.985
(–) Ordaintzeko dauden betebeharrak	5.779.467	5.740.828
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	3.719.361	2.752.535
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	638.428	1.171.422
(+) Diru-sarreraren aurrekontua	149.324	127.139
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	417.495	366.664
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	894.332	1.361.034
(–) Aplikatzeko dauden gastuak	-39.474	-37.967
(+) Diruzaintzako funts likidoak	8.480.710	10.560.016
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	6.377.522	7.731.476
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	13.107.811	13.541.816
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-6.730.289	-5.810.340

V.4. 2013ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2013	2012
A. Ibilgetua	125.185.558	127.591.116
1 Ibilgetu materiala	102.767.453	105.551.868
2 Ibilgetu ez-materiala	210.087	213.141
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	4.826.203	4.444.293
4 Herri-ondasunak	17.375.324	17.375.324
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
C Ibilkorra	17.040.403	15.738.127
7 Izakinak	171.013	140.153
8 Zordunak	6.271.407	7.077.790
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	37.967	39.474
10 Finantza-kontuak	10.560.016	8.480.710
Aktiboa, guztira	142.225.961	143.329.243

Pasiboa

Deskribapena	2013	2012
A Funts berekiak	91.678.102	90.255.179
1 Ondarea eta erreserbak	23.884.679	22.912.647
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.509.663	1.034.071
3 Kapitaleko diru-laguntzak	66.283.760	66.308.289
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	3.279.985	3.290.572
4 Hornidurak	3.279.985	3.290.572
C Epe luzeko hartzekodunak	39.959.807	42.403.555
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	39.959.807	42.403.555
D Epe laburreko hartzekodunak	7.308.067	7.380.110
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.772.158	5.815.372
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.535.909	1.564.738
Pasiboa, guztira	142.225.961	143.329.243

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2013an

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
3 Hasierako izakinak	140.153	101.229	3 Bukarako erosketak	171.013	140.153
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak	84.146	90.925	70 Salmentak	6.152.877	6.247.696
61 Langile-gastuak	13.953.194	13.547.664	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	4.031.601	3.910.795
62 Finantza-gastuak	561.796	803.416	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	10.125.092	10.105.755
63 Tributuak	788	250	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.751.982	1.744.298
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	12.056.719	12.909.693	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	85.894	84.167
65 Gizarte prestazioak	1.843.527	1.787.484	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	12.155.849	12.039.880
67 Transferentzia arruntak	1.445.409	1.324.326	77 Kapitalaren gaineko zergak	375.930	350.401
68 Kapital-transferentziak	342.509	86.168	78 Bestelako diru-sarrerak	409.429	581.589
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	3.620.409	3.829.793	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	8.363	3.905
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.219.380	727.689	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	35.268.030	35.208.638	Guztira	35.268.030	35.208.638

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2013	2012	Deskribapena	2013	2012
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.219.380	727.689
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	78	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	231.498	269.977
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	7.677	808	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	66.461	37.292
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.509.663	1.034.071	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.517.340	1.034.958	Guztira	1.517.340	1.034.958

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek (erakundea autonomoak, enpresak eta fundazio publikoak) beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Ez da aurkitu 2013ko fakturen zenbateko garrantzitsurik 2014ko aurrekontuari egotzi zaionik.
- 0,4 milioi euro egiten duten fidantza batzuk badaude, baina egiaztatzeko dago haiek indarrean dauden. Azterlanik ez da egin azken 15 urte hauetan; horrenbestez, aztertzea gomendatzen dugu.
- . Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak. Epe horiek gainditzen dituzten kasuak gertatzen dira prozedura judizialean dauden gaien ondorioz.
- Udala eta haren erakunde autonomoa zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez dakigu haren ondorio ekonomikoek Kontu Orokorretan eragin ekonomiko esanguratsurik izanen duten. Udalak emandako informazioaren arabera, 2014ko apirilaren 10ean hainbat instantzien aurreko errekurtsio-kopurua 32 zen.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Fidantzen saldoaren indarraldia berrikustea eta, kasua bada, hura erregularizatzea.*
- *Bi fundazioek 2013an izan dituzten emaitza negatiboak direla-eta, aztertzea Udalari sor diezaioketen ondorioak.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 15,7 milioi eurokoa da; hau da, 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 47 eta gastu arrunten ehuneko 52.

2012ko ekitaldiari dagokionez, aitortutako betebeharrak ehuneko 3 handitu dira, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2012	2013	
Goi-karguak	145.751	151.382	4
Kabineteetako behin-behineko langileak	171.321	184.446	8
Funtzionarioak	6.458.735	6.899.065	7
Lan-kontratadun langileak	3.176.393	3.644.128	15
Bestelako langileak	603.589	0	-100
Gizarte-zamak	4.660.867	4.822.957	3
1. kapitulua, guztira	15.216.656	15.701.978	3

Taulan nabarmentzen da 2012an "bestelako langileak" atalpean aitortutako gastua, non erregistratu baita 2012ko abenduko aparteko soldata. 2013an, aparteko bi soldatak kasuko kontusailean erregistratu dira. Gainerako aldeak alta berrien (funtzionarioak) ondorioa dira.

Udalaren Osoko Bilkurak 2013ko apirilean onetsi zuen urte horretako plantilla organikoa. Aldatu zen lan arriskuen prebentzioaren arloko teknikariaren araubideari dagokionez, Udalaren irailaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiaz.

Udalbatzak onartu zuen 2013ko ekitaldiko plantilla organikoan 354 lanpostu daude jasota – horietatik 110 lanpostu bete gabe daude–, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Udala				
Funtzionarioak	271	187	84	56
Lan-kontratadun finkoak	43	31	12	12
Behin-behinekoak:	4	4	-	-
Uren Batzarra				
Funtzionarioak	26	16	10	10
Lan-kontratadun finkoak	1	1	-	-
Behin-behinekoak:	1	-	1	-
Castel-Ruiz Enpresa Entitate Publikoa				
Funtzionarioak	3	3	-	-
Lan-kontratadun finkoak	4	1	3	3
Behin-behinekoak:	1	1	-	-
Guztira	354	244	110	81

Gainera, nabarmendu beharra dago, plantillari begiratuta, aldi baterako 25 langile badaudela, plantillan aurreikusitako lanpostuak betetzen ez dituztenak.

2013ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoan 371 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Guztira
Udaleko batzarkideak	7	0	1	8
Aldi baterako langileak - Izendapen askea	4	1	1	6
Funtzionarioak	182	15	4	201
Lan-kontratadun finkoak	30	1	1	32
Aldi baterako lan-kontratadunak	115	7	2	124
Guztira	338	24	9	371

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kabinetea	4
Idazkaritza Nagusia	3
Kontu-hartzailletza	5
Agiritegia	4
Aholkularitza juridikoa	2
Udaltzaingoa	62
Antolaketa, kalitatea eta herritarren arreta	11
Langileak	7
IKTak	3
Sustapena eta berrikuntza	8
Ogasuna	21
Kirolak, hezkuntza, gazteria eta gizarte etxeak, gizarte gaiak eta emakumea	146
Lurraldearen antolamendua	28
Musika-eskola	27
Guztira	331

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela on-dorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak

direla eta egindako atxikipean zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2013ko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Egiaztatu da aldi baterako kontratazioetarako zerrenda gehienak iraungita daudela.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatze eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak gaurkotzeko.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 12,24 milioi euro egin dute 2013ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 36 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 41 egiten dute. 2012. urtearen aldean, ehuneko zazpi jaitsi da.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Tentsio baxuko energia elektrikoaren hornikuntza	Hornidura	Irekia, Europar publikitatearen eginda / eskaintzarik merkeena	680.152	1	611.517
Lourdes eta María Reina 0-3 urteko zentroetarako laguntza eta hornidura	Laguntza eta hornidura	Irekia; Europar publikitatearen eginda eskaintza onenarentzat	805.416(*)	1	763.145
Ur-kontagailuen irakurketarako laguntza	Laguntza	Irekia; Europar Batasunean publikitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	115.927	1	105.737
Uren Batzarreko ura hartu, tratatu eta biltegitzeko instalazioen ustiakuntza-zerbitzua	Emakida	Irekia; Europar Batasunean publikitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	977.410	7	899.901

(*) Zenbatekoa, 4 urtekorako

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzen den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu da, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere.

VI.4. FINANTZA-ZAMA

Finantza-zamaren gastuek (interesak gehi zorraren amortizazioa) 3,01 milioi egin dute, eta 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 8,97 dira. 2012. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 17 igo dira.

Hona gastu horien xehekako azalpena:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2012	2013	2012/2013
Maileguen interesak	809.022	561.888	-31
Maileguen amortizazioa	1.764.475	2.446.751	39

Honakoa da epe luzeko zorraren amortizazioen egutegia –gehienetan, hitzartutako maileguak 20 urteko eperako izan dira–:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2.014	3.032.522	8	8
2.015	2.982.856	8	15
2016-2020	13.149.338	34	49
2021-2025	10.900.690	28	77
2025-2030	8.987.405	23	100
Guztira	39.052.811	100	100

Horrenbestez, 2015era arte, zorraren ehuneko 15 amortizatu izanen da. Hurrengo urteetako aurrekontuekin zorraren gainerakoari egin beharko zaio aurre.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 1,79 milioikoak izan dira. 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 5,34, transferentzia arrunten ehuneko 4,31 eta kapital-transferentzien ehuneko 1,03 egiten dute.

	Aitoritutako betebeharrak		Aldea (%) 2012/2013
	2012	2013	
Toki entitateei	43.916	44.258	1
Enpresa pribatuei	102.103	176.735	73
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.178.308	1.224.415	4
4. Transferentzia arruntak	1.324.327	1.445.409	9
Toki entitateei	3.761	-	-
Enpresa pribatuei	-	227.630	-
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	82.407	117.509	43
7. Kapital-transferentziak	86.168	345.139	301

2012arekin alderatuta, gastu horiek ehuneko 27 egin du gora, funtsean enpresa pribatu bati emandako diru-laguntzek gora egitearen ondorioz.

Honako hauek dira 2013an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Castel-Ruiz	1.100.000
Etxez etxeko laguntzarako laguntzak	229.582
Garapenerako laguntzak eta diru-laguntza	128.564
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	115.000

Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak hori arautu zuen. Kontu-hartzaileak inguruabar hori zenbait txostenetan nabarmendu izan du. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak emateko berariazko ordenantza batzuk badaude, nahiz eta haietako batzuk –bereziki, gizarte zerbitzuena– antzinakoak diren eta egungo premien arabera egokitu beharko lirakekeen.

Egiaztatu da Kontu-hartzailetzaren arloak egiten duen barne-kontrolak zuzen funtzionatzen duela Tokiko Gobernu Batzarrak emandako diru-laguntzen ordainketak egiteko orduan.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Plan estrategiko bat egitea eta diru-laguntzak arautzeko ordenantza orokor bat onestea, eta desfasatuta geratu diren ordenantzak aztertu edo gaurkotzea.*

VI.6. INBERTSIOAK

2013. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,56 milioi) ehuneko 51 bete da, eta 0,8 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 2.

Taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen azken urteetan inbertsioen betetzearen ehunekoak.

Ekitaldia	Inbertsioen betetzea (%)
2005	26
2006	15
2007	24
2008	25
2009	34
2010	28
2011	22
2012	49
2013	51

Kontuen Ganbera honek behin eta berriro gomendatu izan du txostenetan aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealean arabera doitu behar direla. 2013an, betetzearen portzentajea handiagoa da, zeren eta aurrekontua, Udalaren egoera ekonomikoaz jabetuta, irizpide errealistagoekin egin baita, aurreko ekitaldietan baino.

2012arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 56 –hau da, milioi bat euro– egin dute behera.

2010eko maiatzean saneamendu plana onestearekin, inbertsio batzuk bazter utzi ziren eta gehienak geroratu ziren. Defizit publikoa gutxitzeko aparteko neurriak direla eta, ezin izan da aurrera jarraitu aurreikusita zeuden eta 2009-2013 urteetarako Toki Inbertsio Planean sartuta zeuden inbertsio gehienekin, ezin izan baita kanpoko krediturik itundu haiek finantzatzeko.

Honakoak dira 2013an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Kopurua
Lurretan egindako inbertsioak	352.333
Gaztambide antzokia berritzea	210.530
Quilesen estaldura berritzea	29.577

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedituek izapidetzean, bai haiek esleitzean eta betetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

VI.7. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 35,43 milioikoak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkie eta ehuneko 1, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (21 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (12 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 96koa izan da.

2012. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko bat murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2012	2013	2013/2012
1. Zuzeneko zergak	11.358.934	11.877.842	5
2. Zeharkako zergak	841.519	375.161	-55
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	9.052.916	8.827.465	-2
4. Transferentzia arruntak	12.192.098	12.159.849	0
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.665.273	1.756.030	5
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	35.110.740	34.996.347	0
6. Inbertsioen besterentzea	274.619	434.666	58
7. Kapital-transferentziak	382.615	-	-
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	657.234	434.666	-34
Diru-sarrerak, guztira	35.767.973	35.431.013	-1

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmentzen dira. 2012ko ekitaldiarekin alderatuta, alde nagusiak kapital-transferentzietan daude, zeren eta 2013an ez baita batere jaso.

Taula honetan erakusten da nolako eboluzioa izan duten aitortutako eskubideek udal zerga bakoi-tzean:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2012	2013	2013/2012
Lurraren kontribuzioa	7.634.872	8.048.423	5
Ibilgailuak	1.738.195	1.751.117	1
Lurren balio-gehikuntza	350.401	375.930	7
JEZa	1.629.363	1.701.507	4
Luxu-zergak	6.103	865	-86
EIOZa	841.519	375.161	-55
Guztira	12.200.453	12.253.003	0

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 1., 2. eta 3. kapituluetan diru-sarrera txikiagoak lortu dira. 172 mila euroko jaitsiera izan da.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,269	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,32-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	11,2	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

2013an, balorazio-ponentzia berri bat aplikatu da lurraren kontribuzioaren gaineko zerga kalkulatzeko.

Diru-sarrereren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.8. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, legelari bat, arkitekto tekniko bat, bost administrari eta obren zaindari bat.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere, obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuetako oroitidazkiak idazteko lanak beti kanpoko profesionalek egiten dituzte.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an haren eguneratze bat onetsi zen.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko.

Udalak abiatu ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapideak. 2006an esleitu zen Hiri Antolamendurako Plana taxutzea, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legeari egokitze aldea. "Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua" izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespina. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin Aurretiko Hitzarmena egitearen zain dago, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera; izan ere, oroitidazkiak zehazten duenaren arabera, abiadura handiko linearen ibilbidea behin betiko zehaztearen menpe dago.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, ondare horretatik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da. Udalak diru-sarrera batzuk lortu ditu lurzoruaren udal ondareko lursailak salduz. 434.005 euro egiten dute diru-sarrera horiek, eta ez dira ezertarako ere erabili: atxikitako baliabideen bidezko gerakinaren barruan mantendu dira.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko urriaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas